

Urban Planaren diru-laguntzak ez dira galdu, baina Pasaia badiak bere horretan jarraitzen du, batzuen eta besteen utzikeria dela eta. Bestelako Pasaialdea posible delakoan daude guztiak, baina instituzioen borondate politikoa nahitaezkoa da biziberritzea abiarazteko

JUAN G. ANDRÉS

Argazkiak: **MIGUEL A. ARTOLA / JUAN G. A.**

Hilko gara eta ez dugu Pasaia biziberritzea ezagutuko. Gure bilobek ikusterik izango al dute? Urteak eta urteak pasa ditugu zain". Iñigo Arana Pasaia Antxoko auzo-elkarteko kidearen hitzak dira, baina Pasaia badiako edozein bizilagunaren hitzak izan litezke. Badiako biztanleak "erreta" daude. Bere hitzaldietan ez dago itxaropenerako lekurik. Izan ere, ia-ia sehaskan zeudela hasi ziren entzuten "biziberritzea" zeterrela Pasaialdera, baina alfer-alferriki. Gipuzkoako toki degradatuenetarikoa bat izaten jarraitzen du iragan garaian hain aberatsa izan zen eskualde horrek. Duela 25 bat urte

hasi zen bere ekonomiaren gainbeherada, ontziolak, industria eta arrantzaren krisiak zirela eta. Orduetik hona, gauza gutxi aldatu dira.

Orain urte batzuk, Urban Planaren diru-laguntzak ezagutu zirenean, euforia izan zen nagusi. Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren bidez, behar den diruaren %50 jartzeko konpromisoa azaldu zuen Europako Bataunak. Jakina denez, 2001-2006 denboraldirako aurreikusitako gutxieneko inbertsio osoa 20,6 milioi eurokoa da (3.428 pezeta inguru) eta horietatik Europak 10,3 milioi euro jarri behar ditu. Diru-laguntzak hor daude, baina emaitzarik ez da ikusten kaleetan. Eskualdeko biztanleak kezkatuta daude. Ez da gutxiagorako, Urbaneko milioi horiek guztiak galtzeko arrisku erreala egon badagoelako.

Plan hori Badia Berrik, Pasaia badiaren hiri-berrikuntzarako elkarteak, garatu behar du. Bertan daude sartuta Donostiako udala eta Lezo, Errenteria, Pasaia eta Oiarzun biltzen dituen Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentzia. Badia Berriko gerente Felix Garcia diak ALDAKETARI azaldu dienez, inbertsioak egin eta gero soilik ematen ditu laguntzak Europak, hau da, udalek jarri behar dute dirua lehenbizi, gero Urbaneko sosa jaso zezeko. Gainera, laguntzak ez dira berehalaxe galtzen, bi urteko astia baitago. Hala, 2004. urtean egin behar zen proiektu bat, 2006. urtean ere burutu daiteke, baina berandua eginez gero -2007an, esate baterako-, Europak ez luke laguntzarik emango.

“Jendea lasaitu behar dugu. Sistemak izango dira dirua ez galtzeko, formulak egon badaudelako”, nabarmendu du EAJko Kepa Garbizuk, Lezoko alkateak. Bere Udalak Urbaneko zenbait egitasmo bukatu du eta orain bide-gorri bati ekin behar diote, baina onartu duenez, lanak “nahi eta behar baino motelagoak doaz. Lezo ez hainbeste, baina Pasaia larri-larri dabil La Herrera-ko etxeen botatzea eta abarrekin”. “Urban Plana betetzeko nahiko lan izango dugu. Dauzkagun sosak gatzatzeko diru asko inbertitu behar dugu, bai eta gestio ona egin ere. Eta gero eta denbora gutxiago gertatzen da”, erantsi du. Laguntzak 2008. urtera arte jaso ahal izango dira.

Egitasmo batzuk burutu dira da-goeneko, Altza, Larratxo edota Bidebieta Donostiako auzoetan, baita Errenterian ere, baina bistan da Pasaian asko falta dela egiteko. “2005. urtea oso garrantzitsua izango da, proiektu berriei heldu behar zaielako. Bestela, laguntzak jasotzeko eskubidea gal daiteke”, ohar-tu du Garcandiak.


Bere hitzetan, erabaki behar duten eragile guztiek foro eragin-



Hirigileen ustez, Pasaia-ko badia Kontxakoa baino hobea izan daiteke. “Ez du zertan bigarren mailakoa izan beharrik”, dio Ignacio Alcaldek

garri bat osatu beharko lukete, Bilbao Ria 2000 elkartearen antzera. “Instituzioak ados jarri behar dira, Bilbon arazorik gabe egin zuten, abiadura onean, gainera. Gipuzkoako egungo erakunde arteko batzordea abian jartzea beharrezkoa da”, azpimarratu du. Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Donostia eta Pasaialdeko udalak daude, baina oraingoz ez dago Sustapen Ministerioi ordezkaririk. Hala eta guztiz ere, “baikor” agertu da Garcandia. “Aurrerapenak ikusiko ditugu datorren urtean. Litekeena da hauteskunde autonomikoak eta gero gauzak mugitzen hastea”, esan du, barrez.


Pasaialdeko eta Donostiako udalek Taller de Ideas Madrillgo Hirigintza-estudioaren kargu utzi dute badia biziberritzeko plan estrategikoa. Ignacio Alcalde planaren zuzendariarekin hitz egin dugu eta lantzen ari diren programaz mintzatu da. Horren filosofia hau da, “Pasaia-ko birsorkuntzak ekonomia berrirako guneak bilatu behar ditu”, gaurko jarduerak ez dira orain dela 20 urtekoak bezalakoak. Horregatik, orain diseinatu behar den eredia jasangarria izan beharko litzateke, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren ikuspuntuetatik. Bere irudiko, komenigarria izango litzateke eskualdean ekonomia, sormena, kirola eta kulturarekin zerikusia



La Herrera-ko inguruan dauden eraikin zaharren botatzearen erritmoa motela da. Zaharrituta daude gehienak, eta batzuek ez dute portuarekin zerikusia. duten jarduerak burutzen. Aurten, esate baterako, bost eraikuntza bakarrik eraitsi dituzte. Lursail horiek portuarenak dira, eta kudeaketa da, hain zuzen ere, arazo nagusia, Eusko Jaurlaritza eta Estatu espainiarra tartean baitaude. Eragile sozial eta politiko guztiek ados jartzeko eskatu diete instituzioei.

duten jarduerak sortzea. Alcaldek azpimarratu duenez, porturik gabe ezin da badia ulertu eta "bien arteko elkarrizketa" egon behar da nahitaez.

Baina nola ekin diezaiokegu biziberritzeari hainbeste urtetan zehar utzita egon den eskualdean? "Lurralde honen alde onak ikusten ditugu, eta Pasaialdeak dituen aukerak zoragarriak dira. Bere morfologia dela eta, Kontxako badia baino hobe izan daiteke Pasaia, ez du bigarren mailakoa zertan izan beharrik", azpimarratu du hirigileak. Ildo horretan, Pasaia kostaldeko Kontxakoa baino handiagoa dela azpimarratzeaz gain, inguruko paisaia -mendiak eta bokalea zoragarriak dira- goraitatu du Alcaldek. Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jo du portua eta hiriarren arteko harremana lantzea, Pasaia "bizitzeko, bisitatzeko eta lan egiteko leku aproposa bihurtu behar delako".



"Berrikuntzaren olatua" Taller de Ideas-ek diseinatutako iradokizuna da. Pergola erraldoi batek

La Herrera, aldaketaren hazia.

La Herrera izeneko guneak izan behar du, eragile gehienek ustez, biziberritu behar den lehena. Egun, inguru horretan eraikin asko daude abandonatuta edo egoera txarrean, eta bertan dauden enpresa askok ez dute portuarekin zerikusi duten jarduerarik burutzen. Batzuk garaje edo gordeleku gisa erabiltzen dituzte.

Horiek horrela, Pasaialdean lan egiten duten elkarteek ondo dakite gune horrek aukera asko ematen dituela. Izaskun Gomez PSE-EEko alkateak azaldu duenez, proiektua ez dago oraindik bukatuta, baina ideia batzuk badaude mahai gainean. Erabilera anitzeko auditorioa eraikitzeaz gain, Paco Rabanne gunea egiteko asmoa dute: jostun

Kanpoko portua, ezbaian


Erraustegiekin gertatu den bezala, Jaizkibelgo portu berriaren egitasmoak polemika piztu du Gipuzkoan

EUSKO JAURLARITZAK. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ganberak eta Portu Agintaritzak Jaizkibelgo kanpoko portuaren aldeko apustua egin dute. Beren ustez, "portu berria ezinbestekoa da Pasaialdeko biziberritzeko". Izan ere, "kanpoko portua eraiki gabe" badia ezin dela biziberritu errepikatu dute behin eta berriro agintari jeltzaleek, "bi proiektuak loturik" baitaude. Alvaro Amann (EAJ) Garraio sailburuaren hitzak dira horiek. Sabin Intxaurre (EA)


Ingurumen sailburuak ez du gauza bera pentsatzen proiektua zalantzan jarri du, ingurumen eta lurralde antolamenduaren ikuspuntutik, baina Juan Jose Ibarretxe lehendakariak polemika itxi du kanpoko portua "egitasmo estrategikoa" dela esanez. Pasaialdeko Udalak ez du bere jarrera oraindik finkatu. Paper nekeza dauka Izaskun Gomez alkateak; PSE-EEko kidea da eta alderdi hori kanpoko portuaren aldekoa da, PP eta EAJrekin batera. "Nire alderdia

portuaren alde agertu da, baina ni alkatea naiz, eta oraingoz ez dut esan aurka ala alde nagoen. Baina, Agintaritzaren zenbait dokumentutan, portuaren "kanpoko handitzeari buruz" hitz egiten da, eta horrekin ez dator bat. Zehatz-mehatz ez badu esan ere, kanpoko badian portua eraikitzea onartuko luke alkateak, betiere barruko portua gaur egungo libre utziko bada beste ekintza mota batzuk egiteko. "Barruko portua handitu eta kanpoaldera zabaltzea nahi badute, argi dautkat aurkako botoa emango nukeela", azpimarratu du. Antzeko iritzia eutsi dio Lezoko alkate Kepa Garbizuk (EAJ). "NIK ez dut nahi Lezon bi portu egotea. Kanpoko portu horren loturak Lezotik pasatu beharko lirateke derrigorrez, eta horrek eragin itzela izango luke herrian. Portu bat badiren barruan eta beste bat kanpoan izateak gaurko egoera

okertuko luke", adierazi digu. Horiek horrela, Aldundi eta Jaurlaritzaren iritzia aurka, Pasaialdeko udalak, Badia Berri eta Oarsoaldea elkarteek, eta bizilagun gehienek gauza bera defendatzen dute: kanpoko portuak ezin duela Pasaialdeko biziberritzea baldintzatu, bi afera zeharo ezberdinak baitira. Izaskun Gomezek azaldu duenez, kanpoko portua eraiki arte, hamar urte pasa daitezke.



Kanpoko portuaren proiektua Jaizkibel magalean kokatzen da (fotomuntaketa).



rako ingurua estaliko luke, poligono zaharkitua Pasaialdeko bizilagunen bilgune bihurtzeko.

pasaiatarraren lanak erakutsiko dira eta joskintza-tailerra eta moda-ibiltokia ere egongo dira, ziur asko. Ontzi-museoa eraikitzeko asmoa dago, eta horretarako dirua jarriko du Aldundiak ere. Bestelako egitasmoak erabakitzeke daude, eta oraindik ez dute zehaztu zenbat etxebizitza edo zein zerbitzu eta merkataritza-gune egongo diren.

Baina hori guztia aurrera eramateko, tokia "hustu" behar da.

Ildo horretan, Felix Garcíandiarren ustez, La Herreraren biziberritzea "aldaketaren hasiera da", zeharo aldatu dezakeelako badiako egitura ekonomikoa. Badia Berriko gerentearen ustez, erabili behar diren espazioak zein kudeaketa zehaztu behar dira. Horretan datza, gainera,

arazo nagusia. Estatua da portuaren jabea, bai, baina 1997. urtetik Eusko Jaurlaritzak da kudeatzailea. Izan ere, Portu Agintaritzaren administrazio-kontseilua Lakuak izendatzen du, eta EAJk eta EAK gehien-goia dute bertan. "Portua autonomia da, baina Madrilek onartu behar du alde zuzenetik Pasaiak egin nahi duena: gai garrantzitsuak administrazio-kontseiluak formulatu behar ditu eta Madrilek onartu. Prozesuak bi pauso horiek behar ditu".

Horregatik, Izaskun Gomezek uste du administrazio-kontseiluak egin dezakeen lana funtsezkoa dela. Egia da La Herrerako enpresa bazuek 2012. urtera arte dutela Portuaren kontzesioa, baina "Portu Agintaritzak inplikatu eta emakidatzen joan beharko litzateke beren negozioak beste toki batera eramatea negoziatzeko", kasu askotan portuarekin zerikusirik ez duten lanak egiten dituztelako. "Zer piztatzen du, esate baterako, auto-kon-

"Bitartean zer egin behar dugu? Besoak gurutzatuta geratu?". Gauza bera dio Josetxo Dominguez Trintxerpe XXI auzo-elkarteko kideak. "Ezin dugu 20 urte itxaron portua abian jarri arte. Hori beste eztabaida bat da. Egun, ezin dugu esan kanpoko portuaren alde edo aurka gauden, ez baitauek dokumentaziorik, ez dakigu zertarako egin nahi duten portua. Batzuek esaten

dute ona izango dela Gipuzkoarentzat, baina litekeena da Gipuzkoarentzat ona dena Pasaiarentzat ona ez izatea", bota du.

Alabalna, Jose Igancio Espel Portu Agintaritzako lehendakariak ez du zalantzarik: 800 milioi euroko balioa izango lukeen Jaizkibelgo portua eraiki behar da, egungoa bere "ahalmenaren mugan baitago". Bere datuen arabera, laz merkantzien trafikoak gora egin zuen elkarren segidako zazpi garren aldiz. Gainera, egungo portuaren mugak bistakoak dira, 180 metro baino luzera handilagoko ontziak ezin direlako sartu, ezta 9 metroko sakonera dutenak ere.

Talde ekologistek, aldiz, Ingurumen aurkako "atentatutzat" jo dute Superportua. Jaizkibelgo kostaldea "izugarritzako altxorak" gordetzen dituelako. "Landare, fauna, geologia, eta paisaiaren aldetik

balore ukaezin eta babestuak ditu, baina arriskuan daude proiektu honen bultzatzaileen interes ekonomikoak direla", uste dute.

Edonola ere, Euskal Hirian bukatu berri den Kongresuan, Izaskun Gomezek hauxe aldarrikatu du, Aldundiak Pasaiari laguntza ekonomikoak eman beharko litzekiela portuaren azpiegiturak jasateagatik. "Gure lurraldeko enpresa handienetarikoa bat da portua, eta pasaitarrek egunero jasan behar dituzte kamioien zaratak, txatarraren kiratsa eta sortzen den kontaminazioa. Ez dut inoiz esan portua itxi egin behar denik, Gipuzkoako ekonomia-arentzat ona baita. Horregatik, Gipuzkoako Aldundiak konpentsazioen bat eman beharko lioke Pasaiari", nabarmendu du alkateak.

Ildo horretan, Xabier Pombo (EB-Berdeak) alkateordeak uste du "egungo portuak hiru-

garren mundukoa" dirudielako. "Hustuketa lanak penagarriak dira, ez dago erradioaktibitate detektatzeko tresna bakar bat ere ez; hautsa, keak eta txatarrak baino ez dago", salatu du. Pasaiako Udalak, esan bezala, ez du bere jarrera zehaztu, baina PSE-EErekin Gobernuan dagoen EBren jarrera argia da. Jesus Garcia Garde (EB) Hirigintza zinegotziaren ustez, egungo kala biziberritu beharko litzateke, Buenavistatik Lezoraino, eta bere jarduerak garal berrietara egokituko. "Trafiko produktiboak eduki behar ditu kalak, ezin da txatarraren gordelekua izatera mugatu", esan du. Bere alderdikide Xabier Pombo haratago joan da, bere ustez, kanpoko portua eraikitzea edo ez hiritarrek erabaki behar baitute: "Donostia eta Pasaialdeko udalerririk guztietan erreferenduma bat egitea beharrezkoa litzateke". ■





tzesionario batek La Herrera erdian? Zergatik ezin da eraman beste poligono batera?”, esan du alka-teak.

Ignacio Alcalde hirigilearen us-tez, ez du zentzurik La Herrera be-re horretan mantentzea, beste garai bateko poligonoa baita. “Zaharkitu-tako gunea da, eta ingurua bizibe-rrituko bagenu, Trintxerpe, San Pe-dro eta Altzako bizilagunen bilgu-nea izango litzateke”, onartu du. Garciandiaren antzera, Alcaldek ere uste du Pasaialdeko eraldeatzea La Herreran has daitekeela, gutxietsita izan den gunea baita. Taller de ide-as estudioa prestatzen ari den Pro-grama Estrategikoan sekulako gar-rantzia dute La Herrerari dagoz-kion egitasmoek.

Berehalaxe bukatuko duten Pro-grama horretan pro-gramaren batzuk egin dituzte hiri-gileek. Horretar-ako, aintzat hartu dituzte

“Gipuzkoak asko irabazi du Pasaia-ri esker, baina gutxi jaso dugu. Behiari esnea bukatu zaionean, gutaz ahaztu dira”, diote bizilagunek


Etor Elkartea izeneko jardunaldi-tan herritarrek aurkeztutako ekar-pen asko eta asko. “Pasaialdeko el-kartek indar asko dute eta beren iritziak ezagutu eta jasotzea beharrezkoa zen”. Ideia horri helduz, Tailerrak proposatu du olatu itxura-ko pergola erraldoia jartzea La He-rreran. “Iradokizuna da bakarrik, eztabaida ez da olatua gustatzen zaigun ala ez, baina ideia bat da, geroago instituzioek onartu ala


moldatu beharko luketena”. Alcal-deren hitzetan, “Berrikuntzaren olatua” izeneko proiektuak “txapel baten antza” izango luke, eta horren azpian hiri-guneak, etxebizitza eta mota askotako jarduerak egongo li-rateke. Besteak beste, eguzkiaren energia hartzeko tokia izango da, garapan jasagarriaren lekukoa - “gogoratu behar da Pasaian zentral termikoa dagoela, izugarri kutsa-tzen duen enpresa”. Bere irudiko, leku hori “eraldatzearen sinboloa” litzateke.

Paperaren gainean oso proiektu erakargarria da, baina erakundeen adostasunik gabe ez du ezertarako balio. Hori guztia abian jartzeko instituzioak “mugitu” beharrean daudelakoan dago Ignacio Alcalde hirigilea. “Ahaleginak egin behar dituzte akordioa posible izateko. Hitz politikak esaten dituzte, baina esan ez ezik bete ere egin behar di-tuzte”, adierazi du.

Oraingoz, hitz polit asko esan dute, bai, baina La Herrerari dago-kionez, ekintza gutxi ikus daitezke. Aurten bost eraikin bakarrik eraitsi dituzte, 3 Euskadi Etorbidean eta 2 Gomistegiko biribilgunearen ondo-an. Trintxerpe XXI elkarteak gogo-ratu duenez, Urban Planeko 21 mi-lioi eurotako 5 milioi La Herrera bi-ziberritzeko bideratuko direla. Ez da gutxi.

Herritarrek dute hitza. Bonan-tza Auzo-Elkarteko kidea da Rosa Sistiaga Donibaneko bizilaguna. “Alturako arrantza desagertu zene-tik asko galdu dugu. Gipuzkoak asko irabazi du Pasaia-ri esker, baina gutxi jaso dugu Gipuzkoarengandik. Askotan hona-ko konparazioa egiten dut: behi aberats bat bezalakoa izan da Pasaia baina esnea agortu zaionean gutaz ahaztu dira”, salatu du. Gainera, udalerrian kutsadurak gora egin duela azpimarratu du. Industriak sortzen dituen hautsak agerikoak dira (leihoak eta balkoi-ko barandak gorris edo beltzez “margotuta” agertzen omen dira askotan), eta badiako urak ere ez





daude salbu. “Bere garaian badian bainatzen ginen. Egun, seme-alabak ez nituzke bertan igeri egiten utziko, kloaka bat bihurtu baita”, aipatu du. Bere irudiko, bada garaia, ez dirua “mesedez” eskatzeko, instituzioek ematen duten dirua nahikoa ez dela esateko baizik...

Iñigo Arana Pasai Antxoko barrutiko auzo-elkartean dago. Bere etxearen gertu zenbait eraikin zahar bota dituztela esan du -Luzuriagakoak, hain zuzen-, baina bizilagunek ez dute ikusten gune horietan ezer eraikitzen ari denik. “Arazo politikoa da,

batzuk eta besteak egon dira agintean, baina gauzak hemen berdin jarraitzen dute. Ez dut uste arazoak konpontzeko borondaterik dutenik, oso pesimistak gara”, deitoratu du. Gainera, mugak ere arazo bat dira, oso handia den eskualde horretan “jende askok agintzen baitu: Sustapen ministerioak, Portu Agintaritzak, Aldundiak eta udalek”. “Horrek asko zailtzen ditu soluzioak”, gaineratu du. Errenterian eta Donostian, esate baterako, zenbait proiektu burutu dute, Udalen ardura delako bakarrik. Urban Planaren laguntzak galtzeko arriskuak ere kezka sortu dio Iñigo Aranari.

Laurak bat elkarteak Pasaiako 180 merkatari inguru biltzen ditu. Eurek ere badituzte gauzak esateko, baina nahiago dute itxaron, bizibe-

ritzea komertziorako ezinbestekoa dela jakin badakiten arren. “Denbora eman nahi diegu instituzioei, baina egia da agindutako gauzak ez direla egiten ari. Eta ez dakigu zergatik. Nahiko erreta gaude, lau urte pasatu dira eta ez dute ezer egin”, aipatu du elkarteko kide batek.

Pasaiako alkateak ondo ulertzen du bizilagunen haserre. “Arrazoi guztia dute. Alderdi ezberdinetako alkateak pasatzen ari gara Udaltxetik eta gauzek bere horretan jarraitzen dute”, onartu du Izaskun Gomezek. “Pasaiak ezin du gehiago itxoin, ez da harritzekoa biztanleek fedea galdu izana. Ezin da jasan lehen mailako Gipuzkoa eta bigarren mailakoa egotea, eta badirudi bigarren mailako gipuzkoarrak garela pasaitarrok”. ■

